



Bixente Ameztoi

IZENBURURIK GABE (1984)

Olíoa, 81x151 cm



Xabier Gantzarain

www.argia.eus/arte

Azaroan bete dira 15 urte hil zenetik, 70 beteko zituzkeen aurten Bixente Ameztoi Olasagastik (Donostia, 1946ko urtarrilaren 30a–Villabona, 2001eko azaroaren 6a). Umea zela hasi zen margotzen, besterik egiterik ez zitzaiola sekula burutik pasa esan izan zuen, eta 14 urterekin parte hartu zuen erakusketa batean lehen aldiz. Sariak azkar iritsi zitzaizkion, baita merkatuaren presioa ere, antza: konturatzeko atzetik zeukan jendea lan eske, berak aitortu zuenez, eta horrek gaixotu egiten zuen. Epe, presa, kate guztiak hautsi eta bere barne

erritmoari jarraituz ondu zituen harrezkero bere lanak.

Zeruko Argia-rentzat azalak egin zituen 70eko hamarkadaren bukaera aldera, batzuk polemika sortu zutenak gainera; trantsizio garai hartan oso aktiboa izan zen, *Euskadi Sioux* aldizkarian ere ibili zen, esate baterako. Bere lan guztietan gaia bera da: gizakiaren eta naturaren arteko harremana, bere bariante guztietan, betiere surrealismo ukitu batekin. Erretratuak dira seguru asko bere lanik ezagunenak, baina beti ari da paisaia pintatzen, in-

guratzen duen mundua, barruan duen mundua.

1984ko paisaia hau berezia da oso, ez baitago, bere lanik gehienetan ez bezala, giza arrastorik batera. Igeldo aldetik jarri da artista Donostiara begira, postaletan-eta erabat erabili den begirada berbera hartuta, baina ikuslearen begiak mendian behera itsasora, hondartzara, lurrera egin orduko hautemango duenez, hiria falta da koadroan; ez bide, ez etxe, ez jende, ez dakigu gizakiak paraje hauek zapaldu aurretikoa den irudia, edo naturak beretzat hartu duen inoiz Donostia izan zena. ■